

Landa
eremuak
berpizten

Haur eskolak
ezinbestekoak dira ▶ 5



Titirijairen neurria, kalitatea eta gizatasuna goraipatu dute

IKUSLEAK ▶ Zirkuitu osoan 26.000 ikusle izan ditu aurtengo edizioak

ERAKUSKETA ▶ 'Indiara leihoa' erakusketak 9.000 bisitari izan ditu Aranburun

ARRAKASTA ▶ Berrikuntzek arrakasta izan dute: kalea, denda, sukaldaria... ▶ 2

LEIRE MONTES



'Tolosako Abertzalea' aldizkaria aurkeztu du EAk

TOLOSA ▶ Bi hilabetez behin kaleratuko dute gogoetak eta herriko berriak plazaratzeko ▶ 3

VILLABONA ▶

Euskara kanpaina hasi dute harategietan

Kalitateko zerbitzua euskaraz jasotzeko ▶ 4

IBARRA ▶

Kultur Astea hasi da Gaztetxean

XI. urtemuga dute; gaur, bertso-afaria Peñagarikano eta Mañukortarekin ▶ 6

LEITZA ▶

Leitzako et Goizuetako gazte asanbladek topaketa eguna egingen dute elkarrekin bihar

Egitarau betea izango dute, elkarren berri izan eta ezagutzeko helburuarekin ▶ 7

GABONAK ▶

Gabonsariak jasotzeko aukera Harizpen

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen 2004ko Gabonsariak banatzen hasi dira. Aste honetan gaur pasatu daiteke soilik haien bila, 10:30etik 12:30era, beheko solairuko areto nagusian. Hilaren 13tik (astelehena) 17ra (ostirala) banatuko dituzte berriro; eta, azkenik hilaren 20an, 21ean eta 22an. Bazkide txartel eguneratua aurkeztu behar da.

HEZKUNTZA ▶

Cambridge-ko azterketak Laskorainen

Laskorain Ikastolak Cambridge-ko First azterketak egiteko aukera eskainiko die datozen bi asteburutan Tolosaldeko gazteei. Bihar, idatzizko frogara egingo dute ikasleek, 08:30etik 14:00etara, Laskorainen Usabalgo egoitzan. Hilaren 18an, hurrengo larunbata, ahozko frogara egingo dute. Denera, Tolosaldeko 22 gazte aurkeztuko da azterketara.

TRAFIKOA ▶

Txanpon txartela eskuragai TAOko bulegoan

Aparkatze lanak errazte aldera, TAOko txanpon txartela atera berri du Udalak. TAOko bulegoan (Gorosabel kalea, 48) eskura daitezke, 08:30etik 14:00etara. 30 euroko kargarekin dago salgai; amaitutakoan, parkimetroetan karga daiteke berriro, kopurua aukeraturik. Lehendabizikoa, 33 euro ordaindu behar dira; hau da, 3 txartel eta lehen kargaren 30 euroak.

HITZALDIA ▶

Haurren zaintzea hizpide izango dute Harizpen

Haurren zaintza hizpide izango dute astelehenean mintzagai Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen. *Zaharrak haurren zaintzaile* izenburupean, janariaren garrantzia haurrentzat, umeen larrialdiak, etxeko istripuak, txertoen ondorengo sintomak eta aitona-amonen eta biloben arteko harremanak jorratuko dituzte. 18:00etan hasiko da saioa, lehen solairuan.

MENDIA ▶

Etxegarate-Lizarrusti, Alpino Uzturrek deituta

Alpino Uzturre-k Etxegarate-Lizarrusti irteera antolatu du hilaren 19rako. 4,30 orduko ibilaldia da, eta Areatza (983 metro), Intxusburu (943m.) eta Txagadigorri (936m.) mendiak igoko dituzte. Mendi buelta amaitzean, lagun arteko bazkaria egingo dute Lizarrustin. Izen-ematea zabalik da elkartearen (Gudari 5. 943 65 27 89); bazkideentzat 8 euro, eta besteek 10.

▶ TITIRIJAI

ERREDAKZIOA

Aurtengo Titirijairen antolatzailerik —CIT-TEEK— jaialdiaren balantzea egin dute. Oso gustura agertu dira 22. nazioarteko txotxongilo jaialdi honen emaitzekin. Hauek dira atal desberdinetan egindako balorazioa.

EMANALDIAK

Ikusle kopurua. Tolosako aretoetako datuekin eta zirkuituko beste herrietako datuak jaso gabe oraindik, guztira 26.000 ikusleren kopurua gaudituko dutela diote antolatzailerik. «Euskal Herrian egiten diren beste antzerki jaialdietan ez dago horrelakorik», diote.

India. Beotibar pilotalekuan egun guztietan egon den *Rajasthanen festa* eta *Pavakathakali* nabarmendu dira. Segoviako eta Lleidako jaialdietara gonbidatu dituzte bi ikuskizun hauek.

Espainiako konpainiak. Hauek batzuk erakutsitako maila «nabarmenezkoa» da antolatzailerik esanetan. Espainiako txotxongilo sormenean «orokorrean une interesgarria» ari direla bizitzen diote. Maria Parratoren antzerkia heriotzari buruz, Retablok *Sueño de una noche de veranori* buruz egindako bertsoa, Teatro de la Lunaren *Ferdinando*, Bambalnak egindako Lorcaren *Sonrisa*, e.a. «txotxongilo edo antzerki jaialdi onenetan egoteko moduko ikuskizun sendo eta duinak» direla diote.

Besteak. Kontzeptu eta teknika aniztasuna aipatu behar da beste konpainietan. Ikuslegoa emanaldi oso desberdinez aberasteko aukera izan du.

ERAKUSKETA

Jende askok ikusi du Aranburu Jauregian izan den *Indiara leihoa* izeneko erakusketa. La-

Neurria eta kalitatea

26.000 ikusle izan ditu Titirijaiak; 9.000 erakusketak; Indiako ikuskizunek arrakasta izan dute; baita dendak, sukaldariak eta Txotxongilo kaleak



Rajasthanen festa ikuskizun ikusgarria jende ugari bildu zuen Beotibar pilotalekuan eguneroko saioetan. OLAIJA ESKITXABEL

runbatean 19:30ean ireki eta igande arratsalderako 1.200 baino bisitari gehiago bazituen. Bigarren asteburuan, une askotan jendeak sartzeko ilara luzea egin behar izan zuten. Zenbaitetan sarrera mugatu egin behar izan zuten. Erakusketak iraun duen hamar egunetan 9.000 baino ikusle gehiago izan ditu.

BESTELAKOAK

Haurren epaimahaia. Tolosaldeko hainbat ikastetxetako lau neskek eta bost mutilak osatu dute epaimahaia. Mano y Contamanoren *Titirijugando* aukeratu dute ahobatez haur ikuskizun onena gisa. Erabakia ez zen erraza izan, lehen bozketan

Rajasthanen festa eta *Munduari itzulita 80 egunetan* ikuskizunekin berdinduta baitzegoen.

Indiako ordezkariak. India izan da aurtengo protagonista. 1.000 milioi biztanleko herrialde bateko goi mailako agintariak izan dira egun hauetan Euskal Herriko herri batean: ICCRren zuzendari nagusia, enbaxadorea... Tolosak eta jaialdi honek nazioarte mailan duen oihartzuna adierazten du horrek. Antolatzailerik herritar askoren zorionak jaso dituzte hori dela eta.

Gonbidatu bereziak. Txotxongilo artean aritzen diren nazioarte mailako pertsonaiak etorri dira Txina, Errumania, Frantzia, Espainia, Kanada eta Ale-

maniatik. Batzuk lehen aldiz izan dira eta harridura gelditu dira jaialdiaren neurriaz, kalitateaz eta gizatasunaz: ikuslearen berotasuna, aretoak beteta, kaleko giroa, milaka haur leku guztietatik... «Txundituta gelditu dira», diote TEE-ko antolatzailerik.

Denda. Arrakasta handia izan du Samaniego kalean jarritako dendak. Indiako konpainiek ekarritako txotxongiloak eta artisau objektuak eta Calcuta ondoan eta Ibarrako San Bartolome misio taldea GKE-ek bultzatutako Bidezko Merkataritzako produktuak saldu dituzte. Indiako produktuei dago kienez, 6.000 euroko salmenta egin zuten.

Txotxongilo kalea. Nafarroa

etorbideko dendarien ekimen berri hau «arrakasta» izan omen da. Igarondo dendari elkarteak eta CIT-TEEren laguntzarekin antolatu zuten. Oso bisitatu eta miretua izan omen da. Erakuslehoen muntaia Asvinenea kolektiboak egin zuten, bi egunetako denbora eskasean. «Oso pozik gaude esperientziarekin eta arte erakusketak azaera areagotzeko xehetasun batzuk hobetzeko ideia batzuk baditugu», azaldu dute.

Gastronomia. Jaialdi honetako beste berrikuntza izan da aurtenean. Nat Suriender sukaldari indiarrak ostegun, ostiral eta larunbat gauetan prestatutako afariek Fronton jatetxea bete dute.

POLITIKA ▶

‘Tolosako Abertzalea’, kalean

Tolosako EA-k bi hilabetez behin ateratko duen aldizkaria aurkeztu zuen atzo Alkartetxean; gaur banatuko dute etxez etxe aldizkariaren lehendabiziko alea

LEIRE MONTES

Kalean da Tolosako EA-ren aldizkari berria: *Tolosako Abertzalea* bihilabetekaria. Atzo aurkeztu zuten, Alkartetxean, Andoni Iturzaeta Tolosako EA-ko lehendakariak, Onintza Lasa bozeramaileak eta Mirentxu Moraiz idazkariak. Gaur banatuko dute lehendabiziko alea. «herriko etxe guztietan».

Lasaren esanetan, «ilusio handiz egindako lana da gaur aurkeztu dugun aldizkaria. Gure aurrekoak bezala, gogotsu ari gara lanean; eta ideia berriekin, gainera. Eskerrak eman nahi dizkiet batzordeko guztiei, gure zinegotziei eta bazkide guztiei emandako konfiantzagatik eta proiektu honetan eta beste hainbatetan eskainitako laguntzagatik».

Tolosako EAko batzorde berria sortu eta berehala, gogotara ekin ziola azaldu zuen, ondoren, Iturzaeta lehendakariak: «Tolosan gure lekua zein zen hausnartzen hasi ginen. Alde batetik, gure ideologia zabaltzearen eta eztabaida sortzeko beharra ikusi genuen. Baita gure proiektuaren hedapena eta gizarteratzea bultzatzeko ere».

Tolosarrentzat «erreferente»

«Alkartetxearen eta alderdiaren atea guztiei zabali» ditu Tolosako EAk. Iturzaetaren esanetan, erreferente izatea du



Ezker-eskuin: Moraiz, Iturzaeta eta Lasa, atzo, Alkartetxean, aldizkariaren lehen alearekin. LEIRE MONTES

xede: «Ikuspuntu abertzale, aurrerakoi eta sozialdemokrata batetik, tolosarrentzat erreferente izan nahi dugu».

Asmo horiek guztiak aurrera eramateko, zenbait ekimen jarri dituzte martxan Tolosako EA-koek. *Tolosako Abertzalea* da horietako bat. Alderdiaren gogoetak eta berriak plazaratzea du helburu bihilabetekariak: «Tolosako etxe guztietara iritsi nahi dugu. Denek jakin dezaten zer pentsatzen dugun, eta zergatik pentsatzen dugun era horretan». Aldizkariak «dularorako» iraungo duela gaineratu zuen lehendakariak:

«Ez dugu hauteskunde garaian kaleratu. Aldizkaria ez dagoe-lako kanpainari lotuta. Eta luzaroz gure artean izango dela ziur gaude».

Hainbat atal finko izango ditu *Tolosako Abertzalea*-k: *Eztenkaria* —atal honetan «Tolosako betiko euskaraz» idatzitako testuak jaso nahi dituzte—; *SolasEA*n elkarrizketa atala —lehen aldean, Carlos Garaikoetxea—; *Udalean*, alderdiak Udalean eginako lanaren berri emateko; *Euskal Herriaz*, «abertzaletasuna zer den eta nondik datorren jakiteko», eta Nazioartean —estaturik

gabeko lurraldeen berriak, Palestina aste honetan, eta munduan pil-pilean dauden gaiak jorratuko dituzte—. Kontrazalean, azkenik, denborapasak, komikiak eta bestelakoak izango ditu aldizkariak.

Tolosako Abertzalea-z gain, beste ekimenak antolatzen jarraituko dutela azaldu dute EA-koek: ekitaldiak data zehatz batzuetan (Alderdi Eguna...), kanpainak, hitzaldiak... Besteak beste, gaur, 19:30ean, Begoña Lasagabasterrek eta Uxue Barkosek *Euskal Herria Madrildik* hitzaldia eskainiko dute, udalbatzar aretoan.

ANTZERKIA ▶

‘Cocidito madrileño’ kritikaz beteriko komedia bizia eta barregarria eskainiko dute gaur Leidorren

Ikusmin handia piztu du antzezlanak, eta bi saio izango dira ikusgai, 20:00etan eta 22:30ean

L. MONTES

Duela hilabete jarri ziren salgai *Cocidito madrileño* antzezlanerako sarrerak, eta egun berean agortu ziren. Piztutako ikusminaz jabetuta, saio bat beharrean bi eskaintza erabaki zuten antolatzaileek. Hortaz, gaur, Leidorren, bi emanaldi eskainiko dituzte: 20:00etan eta 22:30ean. Arratsaldekorako sarrera batzuk badaude eta

12 eurotan egongo dira salgai takilan.

Cocidito madrileño izen bereko liburuan eta Javier Vizcainok Radio Euskadin gidatzen zuen irratsaioan oinarrituta dago. Lanak Azul-Colorao antzokian zuzen-zuzenean egiten den irratsaioa du abiapuntu, irrati *Cocidito*-an entzundako bitxikeriek bideratuta.

«Euskarak, homosexualitateak, ikastolek, elizak, euskal

kirolak eta euskal politikariek zeresan ugari emango diete Madrildo sasi-kazetari. Gaur egun komunikabide batzuek Euskadi, Euskal Herria, Vascongadas edota EAERI buruz ematen duten ikuspegia islatu nahi dugu, betiere umore ukitu ahaztu gabe», diote.

Komedia bizia eta barregarria da. 70 pertsonaia baino gehiago pasatuko dira Leidorreko taula gainetik. «Ikusleek

gozatzea nahi dugu, irriaren leloak dioenez, ‘Radio Euskadin entzun eta ikusi egiten baita’. Gauzak esaten diren bezala erakustea da gure helburua. Benetan, aho bete hortz geldituko zarete gizakiak gauzak asmatzeko duen gaitasunarekin». Ironiaz betetako gomen-dio bat ere eman dute: «Izan dezakeen eraginagatik ez da komeni 18 urte beherakoek antzezlan hau ikustea!».

PRESOAK ▶

Sakabanaketa politikaren aurkako bilkura, gaur

Tolosako Etxerat elkarteak deitu du; 19:30ean izango da, Trianguloan

L. MONTES

Tolosako Etxerat-ek kontzentrazioa deitu du gaur, sakabanaketa politikaren aurka, 19:30ean, Trianguloan. Aste honetan, bere seme preso bisitatzeraz zihola, Karnele Solaguren auto istripuz hil zen. Presoen senide eta lagunen 16 heriotza izan da horixe, Etxerat-en arabera: «Hurrengo zu izan zaitezke, sakabanaketa politikak ez baitu begirik. Aurten, euskal preso politikoen senideek eta lagunek 41 auto istripu izan dituzte; horietatik, 112 senide eta lagun zaurituak izan dira. Halaber, sakabanaketa politika indarrean jarri zutenetik, 35 lagun hil ditu: 19 euskal preso eta 16 senide eta lagun».

Heriotza horiek «estatu hilketa» direla salatu du Etxerat-ek: «Sakabanaketa politika estatuak oso ondo kalkulatuako politikan oinarrituta dago, damuketa ala heriotza. Gaitzespen antzuak ez dira nahikoak; sakabanaketaren aurka indarrak bartzeko garaia heldu da».

URTEURRENA ▶

Musika, kirola, antzerkia eta zinema, Bonberenean

L. MONTES

Gaurtik hasita eta etzi arte, era guztietako ekitaldiak antolatuko dituzte Bonbereneakoek. V. urteurrenaren baitan. Gaur, Japoniatik etorri berri den Lobo Electrico eta Brigada Criminal taldeek joko dute etxean, 22:30ean. Bihar, 16:30ean, Bonbereneako I. Eskalada Txapelketa jokatu dute rokodromoan; eta iluzian Mai Gorostiaga umorista tolosarrak *Bakarriketak* lana eskainiko du. Eta etzi E.T. filma izango da ikusgai, zine-klubean, 19:00etan.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Harategietan euskara erabiltzeko kanpaina jarri du abian Udalak

Bezeroek, bai ahoz eta bai idatziz ere, kalitatezko zerbitzua euskaraz jasotzea da egitasmoaren helburuetako bat



Harategietan jarritako panelatan behiaren eta txerriaren zatiak euskaraz nola esan agertzen da. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Villabonan Euskara Biziberri-
tzeko martxan dauden ekimen
eta proiektuen artean bada bat
herriko denda, taberna, jatetxe

eta bestelako establezimendu-
dunetara dagoeneko zabaldua
dagoena. Egitasmo hori *Euskara
Villabonako merkataritzara*
izenarekin zabaldua dago eta
honen ondorioz Villabonako

establezimendu guztiek badi-
tuzte laguntzak euskararen
normalkuntzan aurrerapauso-
ak emateko.

Alde horretatik eta beste
pauso bat eman nahian, aurten

sektoreka eragiteko asmoa au-
rrera eraman da Udaletik, no-
labait lan munduan euskarak
gero eta toki gehiago izan de-
zan. Horretarako, harakinen
sektorea hartu eta sentsibiliza-
zio lana egin nahi izan da.

Egitasmo honen baitan hiru
helburu bete nahi dira Udale-
tik. Alde batetik, Villabonako
harategietako bezeroek kalita-
teko zerbitzua euskaraz jasot-
zeko aukera izatea, bai ahoz
eta baita idatziz ere. Bestalde,
harategiek bezero bakoitzari
euskaraz mintzatzeko egiten
duten ahalegina baloratzea.
Ondorioz, Udalak nahiko luke
baita ere harakinen kontura-
tzea bezeroa bere establezi-
menduan gustura sentitzeko
balio duela euskarak.

Horretarako, harategi bakoit-
zerako despiezearen panel
bat banatu da eta horrekin ba-
tera bezeroei banatzeko libu-
ruxka batzuk. Despiezeko pa-
nelean behia eta txerria ageri
dira. Panelak, kolore biziak ditu
eta argazkiak erabili dira des-
piezeko zatietan.

Liburuxka berriz, betiko be-
zeroari opari gisa entregatzeko
pentsatuta dago, haragiaren
kalitateaz hitz egiten da eta
kalitatezko haragiaren kontsu-
moa euskaraz sustatzen lagun-
du nahi du.

Villabonako Udalak bultza-
tutako *Euskara merkataritzara*
egitasmo honen barruan hara-
kinen gremioari garrantzia
eman zaio eta material hau es-
pezifikoki harategietarako ba-
karrik prestatu da.

Horregatik material honi
bere garrantzia ema diezaiote-
la eskatu zaie harakinei, pane-
la bere harategian jarri eta li-
buruxkak bezeroen artean
bana ditzatela eskatuz.

ZIZURKIL ▶ IKASTAROK

Lorezaintza ekologikoa, zuhaitzak lekuz aldatzea eta behien selekzio genetikoa ikastaroak Fraisoron

Datorren astean burutuko dira; gaur amaitzen da izena emateko epea horietako bi ikastaroretan

I. GARCIA

Datorren astean hiru ikastaro
ezberdin burutuko dira Fraiso-
ro Nezarritzako Eskolan. Astele-

henean hasi eta ostegunean
bukatuko den lorezaintza eko-
logikoaren ikastaroan izena
emateko azken eguna gaur
amaitzen da. Luciano Labajos

izango da irakaslea. Labajos,
Madrileko Ekologistak Mar-
txan taldeko kide da eta liburu
bat argitaratu du gaiari buruz.
60 euro balio ditu eta ikastaroa
Fraisoron bertan burutuko da.

Beste ikastaro bat astelehe-
nean hasten dena, eta beraz,
gaur izango da azken eguna
bertan izena emateko, behien
hobekuntza eta hautaketa ge-
netikoarena da. Bost eguneko
ikastaroa izango da eta katalo-
go modularren barruan

dago. Ikastaro honekin behi-
aziendaren kualifikazioari da-
gokion 4. kreditua lor daiteke.

Bestalde, asteazkenean, hi-
lak 15, zuhaitzak lekuz aldatze-
ko ikastaroa egingo da. Iurre-
tan izango da eta Fraisorotik
aterako da. 20 euro balio ditu
eta astearte da izena emateko
azken eguna.

Ikastaro hauetan izena ema-
teko arratsaldeko 14:00ak bai-
no lehen deitu behar da Fraiso-
roko 943 69 21 66 telefonora.

ANOETA ▶

Interneteko ikastaroak KZgunean

Anoetako KZgunean, aben-
duko ordutegia, 9.00etatik
13.00etara izango da. Bestal-
de, Interneteko ikastaroretan
izena emateko aukera bada-
go. Bi ikastaro emango dira:
hilaren 13tik 24era, 11.00eta-
tik 13.00etara, eta bestea hi-
laren 27tik 31era 9:00etatik
11.00etara. Interesatuak
pasa KZgunetik edota deitu.

ANOETA ▶

Kontzertua gaur gauean Gaztetxean

Gaur gauean, Anoetako Gaz-
tetxean musika kontzertua
izango da. Neu eta Legen
beltza taldeek joko dute
23:00etan hasita.

ANOETA ▶

Dantza-sokaren entsegua bihar Gaztetxean

Dantza-sokaren entseguak
aurrera darrai. Aste honetan,
ez dira egin ohiko egunetan
eta horregatik bihar izango
dute hirtzardua, 11:00etan,
Gaztetxean. Hurrengo ente-
sgua, datorren asteazkenean
izango da, 19:30ean, Gazte-
txean. 60 lagun inguruk
eman dute izena eta beraz,
laster itxiko da zerrenda.

ZIZURKIL ▶

'Gazteak eta kirola' hizpide mahainguruan

Asteburuko kirol ekitaldieen
barruan gaur, 19:00etan,
Atxulondo kultur etxean ma-
haingurua egingo da *Gazte-
ak eta kirola* gaiaren ingu-
ruan. Iñaki Arratibel kirol
medikua, Andoni Imaz, Mai-
der Mendizabal eta Jon
Odrizola ariko dira.

ASTEASU ▶

'Orain herria, orain bakea'-ren aurkezpena

Batasunak antolatuta, *Orain
herria, orain bakea* proposa-
menaren aurkezpena egingo
da Kultur Etxean 20:00etan.

OSTATURIA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

HAUR ESKOLAK ▶

Landa eremuak berpizten

Herri txikiak bizirik mantentzeko Haur Eskola bezalako zerbitzuak egotea «ezinbestekotzat» jo dituzte Tolomendi elkarteko ordezkariak



Tolosaldean eta Leitzaldean, hamaika Haur Eskola daude; argazkian, Leitzako Haur Eskola. JAIONE ASTIBIA

OLAIA ESKITXABEL

Oraingoz hamar Haur Eskola daude martxan Tolosaldean; Leitzan ere martxan jarri berri dute. Zerbitzu horren garrantziaz eta herri txikien garapenez hitz egiteko aukera izan du HITZAK.

«Herri txikiak mantentzeko ezinezkoa da herri txikiak duten biztanle kopuruarengatik, zerbitzu guztiak ikuspegi ekonomiko hutsetik begiraturata errentagarriak izatea. Beste maila batetako errentagarritasun bat hartu beharko da kontutan», azaldu du Imanol Olanok, Tolomendiko teknikariak.

Gizartea ikuspegi orokor batetik begiraturaz gero, denak bere funtzioa du. Bai hiriek eta baita herriek ere beren funtzioa betetzen dute. «Herri txikiak, besteak beste kultura, tradizioa, hizkuntza, patrimonioa (baserriak, elizak...) eta ingurunea... gordetzen dute. Baina horiek mantentzeko, beharrezkoa da giza jardueraren egotea», dio Iker Karrera Tolomendiko gerentekak.

Guzti hori babesteko ekimenak martxan jartzea ezinbestekotzat jo dute, beraz, Tolomendiko ordezkariak: «Landa eremuek gizarteari aportatzen dietenenagatik, horiek bizirik mantentzeko gizarteak sensibilizazio eta diskriminazio positiboa egin behar du», diote.

Zerbitzuak elkarbanatzen

Haur eskoletako gela batean 10 haur sar daitezke; eta herri txiki batetan ia ezinezkoa da kopuru hori lortzea. Ratio horiek bakarrik kontutan hartuz gero, beraz, ezinezkoa litzateke landa eremuetan Haur Eskola zerbitzua jartzea. Ezta hainbat

gizarte zerbitzu eskaintzea ere. Horren inguruan «landa eremuko herriak bizirik mantentzeko zerbitzu horiek guztiak oso beharrezkoak eta estrategikoak» direla azaldu du Karrera.

Hala ere, oraindik jendeak barrera psikologikoak dituela azaldu dute. Adibidez, Balia-

rraingo haurrak ikaztegiatiko Haur Eskolara joan daitezke, baina ez alderantziz: «Distantzia berdina izan arren, jendea oraindik herri txikietan azpiegitura txarragoak daudela pentsatzen jarraitzen du eta ez da horrela».

Pentsaera horren aurka, herri txikietan ere kalitatez zerbi-

tzuak daudela azaltzeko argudioak luzatu dituzte: «Haur eskoletako zainzaileek eta gurasoek kalitate oneko zerbitzua eskaintzen ari dela». Haur gutxi daudenez, bakoitzarekiko arreta handiagoa dela esan daiteke, beraz.

Zerbitzuak modu orekatu batetan eskaintzeko landa eremuko herriek dituzten lokalak eta azpiegiturak elkarbanatzea proposatzen du Tolomendik.

Herri txikietan populazioa igotzen ari da pixkanaka, baina hori ez da kasualitatez gertatu den zerbitzu: «Hamar urteko lana izan da; fruitua azken urteetan somatu da», dio Olanok. «Herri txikietan haurrak jaiozen ari dira; bizi berria somatzen da, zerbitzuak ere egokitu dira (garraio, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak, esaterako) etxebizitzak egin dira...»

Gauzak lortu diren arren, aurkera begira zeregin ugari dagoela azaldu dute Tolomendi elkarteko ordezkariak.

Zerbitzurik ezean, Ibarra

Elduaingo Haur Eskolara lau haur joaten dira; horietako baten aitak zerbitzuaren inguruan duen iritzia jaso du HITZAK

O.ESKITXABEL

Asier jasotzera alaba zaharrenekin hurbildu zenez atzo Jose Migel Gurrutxaga elduandarra. Normalean, amak jasotzen du; izan ere, Gurrutxagak hiru erreleboetara egiten du lana (goizez, arratsalde eta gauez). Emazteak, berriz, egunero ordu betez Haur Eskola garbitzen eta ostiralean udaletxea garbitzen egoten da bi ordu eta erdiz.

Goizean, Asier Haur Eskolan utzi eta Ibarra jaisten dira alaba zaharrena eskolan uztera. Bi seme-alabek eskolan bertan bazkaltzen dute; eta ondoren, etxeratzen dira.

Elduainen Haur Eskola ez egotekotan seme txikiak ere Ibarra eramango luketela azaldu du Gurrutxagak. Gauzak horrela, «herri txiki batetan Haur Eskola zerbitzua egotea oso garrantzitsua da; gurasoek oso pozik gaude». Bere



Jose Migel Gurrutxaga bere seme Asierrekin. O.ESKITXABEL

ustez, «jendea herrian geratzeko Haur Eskola bezalako zerbitzua izatea oso garrantzitsua da». Zentzu horretan, «horrelako zerbitzurik ezean, jendea ez

litzateke herrian geratuko; kanpotarrak ere ez liratezke Elduaingo bezalako herri txiki batetara bizitzera etortzera animatuko». ◀

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNITARIOAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi tapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz I. Euskal Herria, 3, Ibarra. 943 67 09 15

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 691933.

IBARRA ▶ GAZTETXEKO KULTUR ASTEA



Jende ugari bildu zen eta giro polita sortu zen Ibarrao Gazteteanean joan zen urteko bertso afarian. DANI GIBELALDE

XI. urteurrena betetzen duela Gaztetxeak Kultur Asteari ekin dio ekitaldiz beteta

Bertso-afaria, billar txapelketa, hitzaldiak, mahai-inguruak, poesia eta antzerkia izango dira besteak beste datozen egunetan Ibarrao Gazteteanean

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zitzaion hasiera aurtengo Ibarrao Gazteteak antolatutako Kultur Asteari. Beraz datorren abenduaren 19ra bitarte era guztietako ekitaldiez gozatzeko aukera izango da bertan.

Ibarrao Gazteteak ateak zabaldu zituenetik hamaika

urte igaro dira, eta urte osoan zehar egitarau zabala izaten badute ere, ondorengo egunetarako urteurrena dela-eta festa berezia antolatu nahi izan dute.

Ostegunero izaten den bezala zine-klubaren emanaldiekin jarraitzen dute, baina honetaz gain ikusi ahal izango diren artean gaurko bertso afaria aipa-

tu behar da; sagardotegi moduko afaria prestatuko dute Gazteteanean eta afaria alaitzeko bertso saioa eskainiko dute Peñagarikanok eta Mañukortak.

Billarrean jokatzeko mahaia orain gutxi jarri zuten Gazteteanean eta txapelketa bat egin nahi izan dute Kultur Astearen baitan.

Ibarratik Gaztelurako bizi-

kleta martxa prestatu dute datorren astebururako, bertara heltzean bazkari eder batean biltzeko.

Antzerkiak, poesiak, hitzaldi desberdinek mahai-inguruak eta diaporamek osatuko dute gainontzeko egunetako egitaraua. Aukera polita ondorengo egunetan Gaztetea gerturatu eta ondo pasatzeko.

EGITARAUA ▶

GAUR

20:30. Bertso afaria. Peñagarikano eta Mañukortarekin.

ETZI

16:30. Billar Txapelketa.

ABENDUAK 13

19:30. Hitzaldia: *Erraustegiak*. Miguel Izagirre Urrietako erraustegiaren aurkako plataformako kidearen eskutik.

ABENDUAK 14

19:30. Diaporama. *Alpeak 2004*.

ABENDUAK 15

19:00. Mahai-ingurua: *Zer nolako herria nahi dugu herritarrok?*

ABENDUAK 16

19:30. Hitzaldia: *AHTak gure ingurunean egingo dituen kalteak eta onurak*.

21:45. Zine-kluba: *Generacion robada*.

ABENDUAK 17

22:00. *Titirina* haste antzezlanaz Goizeko Izarra taldearen eskutik.

ABENDUAK 18

10:30. Bizikleta martxa Gaztelura.

ABENDUAK 19

18:30. Kirmen Uriberekin 10 poema emanaldia.

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

**SHANTY
KIROLAK**

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ GIZARTEA

Leitza eta Goizuetako gazte asanbladek topaketa eguna egingen dute elkarrekin bihar

Bi herrietako gazte taldeek, arratsalde eta gau beteko egitaraua bitarteko izanik, elkarren berri izan eta elkar ezagutzeko baliatuko dute aukera hau



Leitzaoko Gazte Asanbladakoak, besteak beste, topaketa prestatzeko bileran, lehengo ostegunean. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzaldeko-Goizueta topaketak burutuko dituzte bihar Leitzan, bi herri inguru horietako gazte asanbladek.

Arratsaldean Goizuetakoei ongietorria eginez hasi eta prestatu duten egitarauari jarraiki, arratsalderako ez ezik, gauerako ere hainbat joko eta ikuskizun izanen dituzte aurretik. Berrogeita hamar bat gazte

espero dituzte Goizuetatik «han gazte asko biltzen dira asanbladan eta honera ere dezentente etortzekoak direla esan digute, akaso autobusez egingen dute gainera», adierazi zioten HITZARI atzokoan. Plazan bertan egingen diete ongietorria eta ondorengo jokoetarako taldeak egin eta elkar ezagutzeko baliatuko dute aukera.

Karrapean, betiko jokoak egingen dituzte: sagarrarena,

zaku-saltoa... Afal-aurrean, triki-poteoan ibiliko dira herrian barrena, Leitzako eta Aresoko trikitilari eta panderojoleekin, eta ondoren afaria, Oialde tabernan. «Afarian 100 bat lagun biltzea espero dugu. Goizuetakoez gain, Leitzako eta Aresoko gazte guzterie egin zaie bertan parte hartzeko deia. Eta aurretik eta ondoren ere izanen den kontzerturako ere bai», erantsi zuten gazteek. Izan ere gauer-

TOPAKETA ▶

BIHAR, ABENDUAK 11

17:00. Goizuetarrei ongietorria.
17:30. Jokoak Karrapen.
21:00. Triki-poteoa herrian barrena.
22:00. Afaria Oialden.
24:00. Kontzertua Karrapen: Exum, Korunba eta Deus taldeak.

ditik aurrera Karrapean, Exum, Korunba eta Deus rock taldeek kontzertua eskainiko baitute, «eta ez da sarrerarik hartu beharrik, erabat doan izanen da», nabarmendu nahi izan zuten. Zornotza, Larraun eta Goizuetatik datoz talde hauek, hurrenez hurren.

Larunbat arratsaldean, bihar alegia, izanen diren ekitaldi hauen guztien xedea, ordea, bi herrietako gazte asanbladen «topaketa» egitea omen da eta batez ere goizuetarrek duten eskarmentuaren berri jasotzea: «denbora asko daramate antolatuta han, Gaztetxearen inguruan, ekitaldiak prestatuz... eta haien esperientziaren berri jakin nahi dugu, ikasi», adierazi zuten. Bide batez, «elkar ezagutu eta harremanak hobetzeko ere», baliatuko omen dute topaketa egun hau.

Topaketa hau prestatzen 30 bat gazte aritu omen dira, «deialdia egin eta ongi erantzun du jendeak, gogoekin», zioten. Orain hurrengo urteari begira, plangintzari buruz hitz egiten eta egingen ere ari direla adierazi zuten.

ARESO ▶

Mikel Olazabal eta Betelu, DV finalerako txartel bila

Bihar arratsaldean dute pilota partidua Urretxun, Apezetxea eta Merinoren aurka



Mikel Olazabal aresoarra. J.A.

J. ASTIBIA

Mikel Olazabalek eta Patxi Beteluek, bihar dute DV Torneo finalerdietako pilota partidua Urretxuko Ederrena pilotalekuan.

Arratsaldean, 17:30etik aurrera, Apezetxea eta Merinoren aurka jokatuko dute partidua eta hemendik aterako den bigarren bikotea. Kasu berean leudeke, seniorretako Regi-Mitxeo eta Diaz-Mendizabal gazteak ere: irabazten dutenek pilotako torneo horretako azken partidurako txartela eskuratua izanen dute.

Izan ere Urretxuko irabazleek, Zarautzen izanen dituzte zain, hilaren 25ean jokatuko den azken partidua jokatzeke, Urdaniz eta Diaz de Ulzurrun, etorkizunekoetan, eta Berasaluze eta Apraiz, seniorretan. Hauek astearte honetan berean jokatuko zituzten finalerdia, Altsasun eta irabazi egin zuten, noski.

ARESO ▶

Itzalak taldearen kantaldia gaur 21:30ean

Itzalak taldeak kantaldia eskainiko du gaur gauean, Pake Toki elkartearen egoitzan, 21:30etik aurrera. Euskal kantu ezagunen bertsioez gain, beraiek sortutako doinuak eta hitzez osatutako hainbat kantu ere abestuko dituzte kantari gazte hauek. Ekitaldi hau, Euskara Zerbitzuak antolatuta du, negu bide-rako prestatu ohi duen kultur egitarauaren barrunean.



Itzalak taldearen kantaldia Pake Tokin izanen da gaur. J. ASTIBIA.

iragarki laburrak ▶

Buldain
INMOBILIARIA

Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34

Gorriti. 240 m²-ko familiabakarreko etxe zoragarria salgai. A-15etik hurbil dagoen leku eguzkitsua, Donostia eta Iruñetik 25 minututara.

Leitza. Maxurrenea ondoan 160 m²-ko duplex etxebizitza ederra salgai, 120 m²-ko lorategiarekin.

Leitza. Herri erdian, Zortziko Labetxea ondoan eraikiko diren pisu berriak salgai. Bi gelditzen dira.



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. *El cocidito madrileño* antzezlanaren estreinaldia. 20:00etan eta 22:30ean Leidor zineman.

DEIALDIAK

Alto. Abenduaren 14ean, 8:00etatik 20:00etara, *Zure finantza erakundearekin eragiketak egin* mintegia KZgunean.

Anoeta. Internet ikastaroak: 13tik 24ra, 11:00etatik 13:00etara; eta abenduaren 27tik 31ra, 9:00etatik 11:00etara. Izen-ematea: KZgunean edo 943 654857

Ibarra. Bertso-afaria 20:30ean Gaztetxean Peñagarikano eta Mañukortarekin

Ibarra. Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarteak hilaren 21erako irteera antolatuta du Donostiara, Santo Tomas egunera. Ondoren Oiartzungo Gurutze Berrin bazkaria. Txartelak, elkarteak.

Tolosa. Kontzentrazioa Tolosako Etxerategi deituta, sakabanaketa politikaren kontra, azken heriotza salatuko. Trianguloan 19:30ean.

Tolosa. Material birziklatuaz egindako I. Txobxongilo Lehiaketa. Lanak Kultur Etxean aurkeztu. Gaur da azken eguna.

Tolosa. Asteburueroko 16:30etik 20:30era Gazte Topagunea dago Kultur Etxean.

Tolosa. Batxilergo Laskorain Ikastolan bukatu zuten ikasleen tituluak Orixe Institutuan jaso daitezke. NAN eraman.

Tolosa. Haur Danborradan kontainerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek argazkiak eraman Aiz-Orratz Veleta elkartera.

Tolosa. Hilaren 21ean bazkaria eta dantzaldia izango da Haritze jubilatutako elkarteak.

Irribarren taldeak alaituko du. Bazkideek 13 euro eta bazkide ez direnek 15 euro.

Tolosa. Tolosa CF laguntzeko, Eguberrietako loteria (08943 zenbakia) eros dezake Amets, Irrintzi, Egoki, Orue, 66, Saikin, lurre, Oskarbi, Ordizia, Fronton, Triangulo eta Asteasuarran.

HITZALDIAK

Asteasu. Batasunaren *Orain herria, orain bakea* proposamenaren aurkezpena. Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Begoña Lasagabaster eta Uxue Barkosen hitzaldia. 19:30ean udaletxean.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Luis Laskurainen koadroak herriko Ostatuan.

Tolosa. Ana J. Ansorenaren zeramikak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Anselmo Elizalderen koadroak Fronton kafetegian.

Tolosa. Rufino de Tororen koadroan Sorron dendan.

Villabona. Maxola tabernan, Jone Telleriaren margolanak.

IKUSKIZUNAK

Alegia. Pirritx eta Porrotx pailazoan *Patata, patata* ikuskizun berria. Bihar kiroldegiaren ondoan 16:30ean.

KIROLAK

GAUR

Esku pilota.

(Gipuzkoako Elkartearen Artekoa)
▶ Zumaia 2-Aurrera/Saiaz (Jubenil 2. Maila. 18:30, Odieta).
▶ Zazpi Itturri-Aurrera/Saiaz (Kadete. 22:00, Amezketeta)
▶ Zazpi Itturri-Real Sociedad (Nagusiak. Ondoren, Amezketeta).

Zesta punta.

▶ Zumaia 1-Beotibar 1



Elizalderen koadroak

TOLOSA ▶ Anselmo Elizalde pintore tolosarraren koadroak ikus daitezke egun hauetan Fronton kafetegian. Herriko eta beste lekuetako paisajeak dira gehienak. J. SAIZAR

(Kadete. 18:30, Odieta).
▶ Beotibar 1-Gazteleku 4 (Nagusiak. 19:00, Santa Luzia).

Areto futbol.

▶ Ataun-Tinta (Nesken liga. 21:30, Ataun).

BIHAR

Areto futbol.

▶ Futsi Navalcarnero-Hegoalde (Emakumezkoen Ohrezko Maila. Navalcarnero).
▶ Los Peñucas-Ibarra (1. Maila A.).
▶ Laskorain-Altamira Bar Txutxi (1. Maila B. 19:00, Berazubi).
▶ Makax-Trans.Lakunza (Autonomikoa. 18:30, Donostia).

Esku pilota.

▶ Eibar-San Esteban (Nagusiak 3. maila. Gipuzkoako Txapelketa. 11:00, Orbea).
▶ Zazpi Itturri 2- Añorga 2 (Kadete 1. maila. 16:00, Amezketeta).
▶ Zazpi Itturri 1-San Esteban 2 (Jubenil 1. Maila. Ondoren, Amezketeta).
▶ Zazpi Itturri 2- Anaitasuna (Jubenil 1. Maila. Ondoren, Amezketeta).
▶ Añorga 1- Zazpi Itturri 1 (Kadete 1. Maila. 16:00,

Añorga).

▶ Behar Zana 1-Mundarro 1 (Infantil. 16:00, Astigarraga).

▶ Añorga 1-San Esteban 1 (Infantil. 16:30, Lazkao).

▶ Erniope-Kuku 1 (Infantil. 17:00, Michelin).

▶ San Esteban 2-Behar Zana 2 (Infantil. 17:00, Bidegoian).

▶ Lazkao 3-Aurrera/Saiaz 2 (Infantil. Ondoren, Bidegoian).

▶ Aurrera/Saiaz 1- Elordi (Infantil. Ondoren, Bidegoian).

▶ Ataun-Kuku 2 (Infantil. Ondoren, Bidegoian).

▶ Zazpi Itturri 1-Añorga 1 (Nagusiak 1. Maila. 18:00, Asteasu).

Futbola

▶ Tolosa-Hondarribia (Gorengoen Maila. 16:30, Berazubi).
▶ Irun 1902-Tolosa B (Lurraldekako 1. Maila. 19:30, Gal).
▶ Lasarte Oria-Danena (Lurraldekako 2. Maila. 15:30, Michelin).
▶ Usurbil-Danena (Lurraldekako 2. Maila. 15:30, Harane).
▶ Amorebieta-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 17:00, Txolon).
▶ Intxurre-Ikasberri (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Elorri).
▶ Beti Gazte-Billabona

(Jubenilen 1. Maila. 15:30, Mastegi).

▶ Euskalduna B-Tolosa (Jubenil 2. Maila. 18:30, Allurralde).

▶ Tolosa-Euskalduna (Kadete 2. Maila. 10:30, Elorri).

▶ San Ignacio-Amaroz (Kadete 2. Maila. 10:30, Felix Garin).

Saskibaloia.

▶ Aralar-Ingen.G.Arana (Senior Maila. Berazubi, 17.00).

Futbol 7.

▶ Encofrados Iguazuri-Bar Shanti Kirolak (2. Maila. 19:00, Idiazabal 1).

Zesta punta.

▶ Zumaia-Beotibar (Jubenilak. 16:00, Karmelo Balda).
▶ Zumaia 3- Beotibar 2 (Nagusiak. Ondoren, K.Balda)

ETZI

Futbola.

▶ Baztan-Aurrera (Lurraldekako 1. maila. 15:45, Elizondo).
▶ Tolosa-Eibar (Kadeteen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).
▶ Mutriku-Billabona (Kadete 1. Maila. 15:30, San Miguel).

Futbol 7.

▶ Zardoya Otis-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila. 12:30, Hernani 1).
▶ La Kabutzi-Lanbroa Dickens (1. Maila. 11:30, Urnieta 1).

MUSIKA

Anoeta. Neu eta Legen Beltza. Gaztetxean 11:00etan.

Berastegi. Marxaundi gaua: Ezein eta DJ King. 22:30ean Urepel elkarteak.

Tolosa. Lobo electrico eta Brigada Criminal. 22:30ean Bonberenean.

ZINEMA

Tolosa. *Shall we dance? (¿Bailamos?)*. Bihar 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Leire Parra Orbego
(Ikaztegieta). Gaur 4 urte.
Zorionak ebekoan partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZaren egoizetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!